



# IRPH STOP GIPUZKOA

## IRPHaren KALTEDUNEN GIPUZKOAKO ELKARTEA

### PLATAFORMA DE AFECTADOS POR EL IRPH DE GIPUZKOA

www.irphstop.plazan.net :: irphstop@gmail.com

Donostia, 2014-06-12

IRPHaren kaltetunen elkarteak komunikabide batzuk gaurko egunean dakarten ez-berriari erantzutera behartuta ikusten du bere burua, honelako titularrak irakurri ondoren: «Kutxak IRPHari lotutako hipotekak jeisten ditu».

Titularrak honela behar luke izan: «Kutxak legeari muzin egiteko saiakerak agortu ditu eta desagerturiko IRPH indizea ordezkatzera behartua dago azkenean, hipotekak jeitsiaz».

Azpitutulu on bat hau litzateke: «Hainbat erakundetatik jasotako deiari muzin eginez atzeratu zuen betebeharrak».

Lead bezala hau erabili zatekeen: «Epai batek esan du neurri hau 2013ko uztailan aplikatu behar zuela mailegu guztiei».

Eta berria bera osoagoa litzateke kaltetunen iritzia jasoko balu: «Kaltetunek uste dute Kutxaren oharren helburua desinformatzea eta IRPHaren arabera kobraturiko guztiak atzerako eraginez itzultzeraz zigortu duen epaia ezkatzea dela».

Aipatu den beherapen hori gertatzen ari bada, gure kontratuek IRPH Cajas desagertzearen kasurako Euribor gehi puntu bateko ordezkoa ezartzen dutelako da. Eta desagertze hori gertatu da. Beraz kontratuaren betetze bat besterik ez da, eta gainera berandu dator.

Eta berandu dator, ze 2011n Gardentasunaren Aldeko Ministeritza Agindu batek IRPH Cajas indizea arauditik kendu zuen, eta Kutxak momentu hartan bertan aplikatu behar zuen adosturiko ordezkoa. Baina ez zuen egin, familia bakoitzarentzat batzuetan besteko 250 euroko beherapena zekarrelako hain zuzen ere. Kutxak IRPH Cajas aplikatzen jarraitu zuen, indize hau argitaratzen jarraitu zela argudiatuaz. Baina indizea argitaratzeari ez uzteko arrazoi bakarra zen estatua atzeratu egin zela ordezkorik ez zuten maileguentzat ordezkotzat ezartzean.

Aplikagarri izango ez zitzaion ordezkotzat ezartzeari itzarotea erabaki zuen beraz Kutxak, adosturiko ordezkotzat aplikatzeko unea atzeratzeko estrategia gisa, hipotekek izango zuten beherapena sahisteko. Eta bide horretan, hainbat erakundek egin dioten deiari entzungor egin dio, Euribor+%1 ordezkotzat berehala aplikatzeko eskatu diotenean.

Donostia – San Sebastián, 12-06-2014

La plataforma de afectados por el IRPH se ve obligada a salir al paso de la no-noticia que algunos medios recogen hoy con titulares como el siguiente: «Kutxa rebaja las hipotecas referenciadas al IRPH».

El titular debería ser «Kutxa agota sus intentos de burlar la ley y se ve obligada a sustituir por fin el desaparecido IRPH, rebajando así las hipotecas».

Un buen subtítulo sería: «Retrasó esta obligación desoyendo los llamamientos expresos recibidos desde numerosas instituciones».

Podría emplearse esta entradilla: «Una sentencia reciente dicta que tendría que haber aplicado esta medida en julio de 2013 a la totalidad de los préstamos».

Y el cuerpo de la noticia sería más completo si incluyera la opinión de los afectados, que «creen que el comunicado de Kutxa pretende desinformar y ocultar la sentencia que condena a Kutxa a reintegrar con carácter retroactivo todos los intereses cobrados con IRPH».

La rebaja anunciada ocurre porque nuestros contratos establecen como tipo sustitutivo el Euribor más un punto para el caso de desaparición del índice IRPH Cajas, que es lo que ha ocurrido. Se trata por tanto de una pura aplicación del contrato, que además llega tarde.

Y llega tarde porque ya en 2011 una Orden Ministerial de Transparencia eliminó el IRPH Cajas del ordenamiento y Kutxa debió aplicar entonces el sustitutivo acordado. Pero se negó, precisamente por la rebaja de 250 euros de media que supondría a cada familia. Kutxa continuó aplicando IRPH Cajas argumentando que seguía siendo publicado. Pero si el índice no dejó de publicarse fue porque el estado se retrasó en fijar un sustitutivo para los contratos que no lo preveían.

Esperar a la fijación de un sustitutivo que no le sería de aplicación para retrasar la aplicación del sustitutivo acordado en nuestros contratos ha sido la estrategia de Kutxa para evitar el descenso de las cuotas. Y en esa estrategia ha hecho oídos sordos a los llamamientos expresos que ha recibido desde numerosas instituciones, que le instaban a aplicar de inmediato el Euribor+1% a la totalidad de sus hipotecas con IRPH Cajas.



## IRPH STOP GIPUZKOA

### IRPHaren KALTEDUNEN GIPUZKOAKO ELKARTEA PLATAFORMA DE AFECTADOS POR EL IRPH DE GIPUZKOA

www.irphstop.plazan.net :: irphstop@gmail.com

Honela, 2013ko ekainean Eusko Legebiltzarrak eta Donostiako udalbatzak berehalako ordezkatzeari eskatu zioten bere mailegu guztietan, eta Batzar Nagusiak 2013ko azaroan batu ziren eskabide honetara (atxikita doaz ebazpenak). Foru Aldundiko eta donostiako Udaleko gobernuek ere Kutxari dei egin diote, eta probintzia mailan hogeitau udalerritan onartu dira antzeko mozioak.

Kutxak deialdi hauei guztiei muzin egin zien, eta arazoa epaitegietara iritsi zen. Eta Donostiako Merkataritza-Arloko 1. Epaitegiaren 156/14 epaiak hauxe esan du, hitzez hitz: «cuando menos desde el 29 de julio de 2013, fecha en que cesa la consideración del IRPH Cajas como índice oficial, el contrato de autos tendría que estar siendo remunerado con el índice Euribor + 1 %, porque así lo pactaron las partes».

Beraz, Kutxak hipotekak jeistearen aurka egin du erakundeei entzungor eginda eta legez kanpo jokatuaz.

Hala ere, dagoeneko eztabaida nagusia ez da ordezkapenaren dataren ingurukoa, eta Kutxak argitara eman berri duen oharraren helburua desinformatzea da, orain funtsezkoa den gaitik arreta desbideratuz: epaitegiek IRPH Cajas indizearen aplikazioa baliogabetu dute, araudiaren aurkakoa delako, eta Kutxa zigortu dute Euribor+%1 atzerako eraginez aplikatzera, IRPH Cajas indizearen arabera ordainduriko kuota guztiguztietan. Beraz, Kutxa bidegabe kobratu dituen interesak itzultzera zigortua izan da.

Eztabaidaren gakoa hauxe da orain: entitatearen erantzule politikoek epaiari helegitea jarriko diote eta herritarrak euren eskubideen defentsan epaitegietara jo beharko dute ala epaia onartu eta kaltetu guztiei zabalduko diete. Azken hau da IRPH Stop eta Kaleratzeak Stop elkartearen aldarrikapena.

Aldarrikapen hau Kutxaren Administrazio Kontseiluan onartua izan zen, eta gaia Kutxabanken Kontseiluan aztertuko da orain. Gainera, ekainaren 19an Eusko Legebiltzarraren osoko bilkurak gai bera aztertuko du.

Berria ez da hortaz Kutxa IRPH Cajas indizea Euribor+%1 indizearekin ordezkatzeko ari dela, behartuta eta gainera berandu, baizik eta atzerako eraginez egitera zigortzen duen epai bat badela, bidegabe kobratu dituen interesak itzultzera zigortu duena.

Así, en junio de 2013 el pleno del Parlamento Vasco y el del ayuntamiento de Donostia le pidieron una sustitución inmediata en todos sus contratos, y las JJGG se sumaron en noviembre de 2013 (ver resoluciones adjuntas). Los gobiernos de la Diputación Foral y el Ayuntamiento donostiarra, fundadores de la caja, también han instado a Kutxa, y a nivel provincial una veintena de municipios han aprobado mociones análogas.

Kutxa ignoró todos estos llamamientos, y la cuestión llegó a los tribunales, donde la sentencia 156/14 del Juzgado de lo Mercantil nº 1 de Donostia estableció lo siguiente: «cuando menos desde el 29 de julio de 2013, fecha en que cesa la consideración del IRPH Cajas como índice oficial, el contrato de autos tendría que estar siendo remunerado con el índice Euribor + 1 %, porque así lo pactaron las partes».

Nos encontramos por tanto con que Kutxa se ha resistido a la rebaja de las hipotecas desoyendo a las instituciones y actuando de manera ilegal.

Sin embargo, la principal discusión ya no se centra en la fecha de sustitución, y la nota de Kutxa sólo busca desinformar y desviar el foco de atención de lo fundamental: los tribunales han dictado que la aplicación del IRPH Cajas es nula por contravenir la normativa vigente, y han condenado a Kutxa a aplicar Euribor+1% con carácter retroactivo, a todas las cuotas ya satisfechas según IRPH Cajas. Así, Kutxa ha sido condenada a devolver los intereses ilegalmente cobrados.

El debate se sitúa ahora en si los responsables políticos de la entidad recurrirán la sentencia y obligarán a la ciudadanía a defender sus derechos en los tribunales, o la acatarán y la harán extensiva a todos los afectados. Esta es la reivindicación de las plataformas IRPH Stop y Stop Desahucios.

Esta reivindicación fue aprobada por el Consejo de Administración de Kutxa y el tema será ahora tratado en el Consejo de Kutxabank. Además, el próximo 19 de junio el pleno del Parlamento Vasco tratará este mismo tema.

La noticia no es por tanto la sustitución paulatina del IRPH Cajas por Euribor+1%, que Kutxa está realizando de manera forzosa y tardía, sino la sentencia que le condena a hacerlo con carácter retroactivo, devolviendo los intereses indebidamente cobrados a los afectados.